Hernaniko Udala

HERNANIKO KIROL KLUBETAN EUSKARA PLANAK GARATZEKO HITZARMENA

Hitzarmena Hernaniko Arraun Elkartea kirol taldearen eta Hernaniko Udalaren artekoa da, kirol klubek Euskararen Erabilera Planak gara ditzaten baliabideak eskaintzeko.

PARTE HARTZEN DUTE:

Alde batetik, **Jon Odriozola Amigorena**, kirol taldearen ordezkari gisa, eta, bestetik, **Xabier Lertxundi Asteasuinzarra** jaunak, Hernaniko Udaleko alkate eta ordezkari gisa.

ADIERAZTEN DUTE:

1. 2023ko irailaren 26ko osoko bilkuran onartu zuen Hernaniko Udalak 2023-2027 eperako herriari begirako euskara plana, 2022-2023an herriko hainbat eragilerekin landu eta adostua. Plana 2021-2022 ikasturtean herriko hainbat pertsona kualifikaturekin egindako gogoeta prozesu baten ondorio da.
2. Planak aipatutako epe jakin horretarako lehentasunezko lerroak eta egutegi-proposamen batez gainera, besteak beste, Euskararen Kontseilua sortzeko proposamena jasotzen du. 2024ko urtarrilean sortu zen.
3. Planak jasotzen dituen gidalerroak udalaren Euskara Zerbitzuak gauzatzekoak dira, herriko eragileekin elkarlanean. Euskararen Kontseilua da elkarlanerako tresna.
4. Adostutako lehentasunezko lerroen artean aisialdiarena da bat. Aisialdiaren barruan, berriz, aisialdia eta kirola euskaraz izatea. Ezin da ukatu aisialdiak gaur egun gure gizartean duen garrantzia, eta aisialdiaren barruan kirolak duena.
5. Eta kirolaren arloan kirol klubek funtzio oso garrantzitsua betetzen dute.
6. Datu soziolinguistikoek diote Hernanin 19 urte baino gutxiago dituztenen % 90,8 direla elebidunak, baina lehen hizkuntza % 35,3k bakarrik dute euskara. Erabilerari dagokionez berriz, azken inkesten arabera, kalean % 33,3 egiten da euskaraz eta etxeetako % 25,8an; erdaraz, berriz, etxeen % 54,7an. Datu hauek jakinda, erraz uler daiteke herritaren % 20,3 bakarrik izatea euskaraz erdaraz baino errazago egiten duena.
7. Eta soziolinguistikan gauza jakina da pertsonok errazen egiten dugun hizkuntzan hitz egiteko joera dugula. Beraz, etxean eskuratu ezin dutena neurri batean eskolak emango die, baina ez da nahikoa, eskolan haurren haien denboraren % 15 besterik ez dute pasatzen-eta. Hortaz, eskolaz gainera, herriak eskaini behar die etxean aurkitu ezin dutena; eta, horretarako, aisialdiak, eta haren barruan kirolak, funtsezko eginkizuna du.
8. Hizkuntzari zaion atximendu aldetik ere euskara eta eskola binomioa haustea ezinbestekoa da. Gaur egun haur eta gazte askok euskara eskolarekin bakarrik lotzen dute, lanarekin eta ahaleginarekin alegia. Euskarari atxikimendua lortzeko ezinbestekoa da haur eta gazteek ondo pasatzea euskaraz, euskara gozamenarekin lotzea. Hor ere aisialdiak eta, noski, kirolak, eginkizun erabatekoa dute.
9. Horiek horrela, 2023-2027 eperako herriari begirako euskara planaren aisialdia lehentasunezko lerroaren aisialdia eta kirola euskaraz izatea lan-ildoaren barnean, 2023-2024 denboraldian Euskara Zerbitzuak herriko 12 kirol kluben euskararen erabileraren diagnostikoa egin zuen, 16 urtez beheko talde eta kirolariena; alde batetik, herriko argazki orokorra atera

zen eta, bestetik, kirol klub bakoitzarena; 2024-2025 denboraldian ondu ziren txostenak; eta argazki orokorra kirol mahaian aurkeztu zen eta klub bakoitzari bere egoeraren berri jasotzen duen txostena aurkeztu zitzaion.

10. Hamar klubi proposatu zien Euskara Zerbitzuak euskara-plana egiteko. Bi klubek ez dute beharrik, dagoeneko euskara hutsez funtzionatzen dutelako. Zortzik baiezkoa eman zuten.
11. **Hernaniko Arraun Elkartea** klubak baiezkoa eman dio euskara-plana garatzeari.

KLAUSULAK

Lehena. Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen helburua da herriko kirol klubetan euskara-planak garatzeko baliabideak eskaintzea Udalak, klubak arnas-gune funtzional bihurtzeko; hau da, euskaraz naturaltasunez eta eroso bizitzeko guneak.

Bigarrena. Udalaren konpromisoak.

- Euskara-planak egiten eskarmentua duen enpresa bat kontratatuko du Hernaniko Udalak, Hernaniko Arraun Elkartea klubari egokitutako euskara-plana diseinatzeko.
- Euskara Zerbitzua enpresarekin eta klubarekin elkarlanean arituko da euskara-plana garatzen den bitartean, plana behar den helburuekin betetzen dela jarraipena egiteko, Euskararen Kontseiluan eta udalean garapenari buruz informatzeko.

Hirugarrena. Hernaniko Arraun Elkartea klubaren konpromisoak.

Hernaniko Arraun Elkartea klubak konpromisoa hartzen du hitzarmenak dirauen bitartean euskara-plana garatzeko Udaleko Euskara Zerbitzuarekin eta Udalak kontratatzen duen enpresarekin lankidetzan arituko dela. Besteak beste:

- Enpresarekin beharrezkoak diren bilerak egitea.
- Enpresak euskara-plana diseinatzeko eta garatzeko behar duen informazioa enpresari ematea.
- Plana garatzeko klubean arduradunik beharko balitz, hura izendatzea.
- Planaren garapenean adosten diren komunikazioak bideratzea klubeko partaideei.
- Euskararen erabilera areagotzeko adosten diren jarduerak bideratzea.

Laugarrena. Hitzarmenaren indarraldia.

Klubarentzat euskara-plana diseinatzen denean aurreikusten den denboraldi kopurua, gehienez lau denboraldi. Hortik aurrera ikusiko da indarrean jarritako planari jarraipena egiteko beharrezkoa den modua.

Bosgarrena. Aplikatu beharreko araubide juridikoa.

Hitzarmen honi aplikatuko zaio zuzenbide administratiboaren eraentza juridikoa, hau da, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. Kapituluan aurreikusitako hitzarmenen araubide juridikoa: alegia, arau horretako 47. artikulutik 53. artikulura arte, bi horiek barne. Hitzarmen honek administrazio-izaera juridikoa dauka.

Hitzarmenaren ondorioei, interpretazioari, aldaketari edo amaierari buruz alderdien artean sor litezkeen zalantzak edo gaizki-ulertzeak bitariko jarraipen batzordean adostuko dira adiskidetzaren bitartez. Hori ezinezkoa izatekotan, auzi horiek administrazioarekiko auzitegi eskudunak ebatziko ditu, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Seigarrena. Hitzarmena ez betetzea.

Hitzarmen hau ez betetzeak berez dakar aurrerantzean klubarentzat interesekо izan daitezkeen egitasmoetan udalaren elkarlanerako eta dirulaguntzetarako lehentasuna galtzea.

Hernanin, 2026ko otsailaren 3an

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Hernaniko Udala

Jon Odriozola Amigorena
Hernaniko Arraun Elkartea